

KONTROLAREN PREZIOA

Entzuten zen Etxe Zurian giro arraroa. Ez zen ohiko eguneroko tentsio hori, baizik eta zerbait handiagoa zetorrela sumatzen zen une horietakoa. Korridoreetan jendea zebilen alde batetik bestera, dokumentuak eskuetan, batzuetan presaka, baina inork ez zuen ia hitz egiten. Eta hitz egiten zutenean, ahots baxuan egiten zuten, beste inork entzun ez zezan bezala.

Inork ez zuen argi esaten zer gertatzen ari zen, baina denek zekiten zerbait mugitzen ari zela atzean.

Bilera gelan, giroa are astunagoa zen. Presidentea eserita zegoen mahaiaren buruan, geldi, aurpegia serio. Aurrean, lehengo ministroa. Mahai gainean papera batzuk zeuden, baina inork ez zituen begiratzeko. Isiltasuna luzeegia egiten ari zen.

Ministroak ez zuen begirada altxatzen. Bere eskuak estutzen zituen, askatu, berriro estutu... urduritasuna nabaria zen. Azkenean, ezin izan zuen gehiago isilik egon.

—Ez dakit hau ideia ona den —esan zuen, arnasa pixka bat hartuta—. Egia esan ez dut batere garbi ikusten.

Presidenteak ez zuen berehala erantzun. Segundo batzuk pasatu ziren. Gela osoa geldirik geratu balitz bezala.

—Zergatik? —esan zuen azkenean, lasai.

—Hau ez da operazio arrunt bat —jarraitu zuen ministroak—. Honek ondorioak izango ditu. Handiak. Ez bakarrik hemen... mundu osoan.

Presidenteak burua pixka bat makurtu zuen, pentsakor.

—Mundua beti dago nahasian —erantzun zuen gero—. Ez da hori berria.

Ministroak burua altxatu zuen orduan, lehen aldiz.

—Bai, baina hau... beste maila bat da.

Presidenteak begiratu zuzena egin zion.

—Aldea da nork kontrolatzen duen egoera.

Eta hor amaitu zen elkarrizketa. Ministroak ez zuen ezer gehiago esan. Bazekien erabakia hartuta zegoela.

Handik egun gutxira, plan guztia martxan jarri zen. Kanpotik, ordea, ez zen ezer berezirik ikusten. Jendeak bere bizitza egiten jarraitzen zuen: lanera joan, erosketak egin, umeak eskolara eraman. Albisteetan ez zen ezer handirik esaten.

Baina pixkanaka, gauza txiki batzuk agertzen hasi ziren. Sare sozialetan satellite irudi batzuk filtratu ziren. Mugimendu militar arraroak, itsasontziak lekuz aldatzen... Hasieran, jende askok ez zion kasu handirik egin. Baina beste batzuek bai.

Estatu Batuak Israelekin batera ari ziren lanean, Ekialde Hurbilean. Helburua ez zen soilik militarra. Petrolioaren kontrola ere bazegoen tartean, eta horrek gauzak asko konplikatzeko zituen.

Irán-ek egoera ikusi zuen, eta ezin izan zuen ezer egin gabe geratu. Lehenengo erasoak azkar etorri ziren. Base militar batzuk jomugan jarri zituzten, eta eraso zehatzak izan ziren. Hasieran, bazirudien dena kontrolpean zegoela. Baina egun gutxitan, dena azkartu zen. Erantzunak iritsi ziren, gero kontraerasoak... eta tentsioa igotzen hasi zen, gero eta gehiago.

Munduan berehala nabaritu zen. Petrolioaren prezioa igotzen hasi zen, eta horrek dena aldatu zuen. Energia garestitu zen, garraioa zaildu, eta enpresak arazoekin hasi ziren. Europan egoera gogorra bihurtu zen. Fabrika batzuk gelditzen hasi ziren, kostuak handiegiak zirelako. Enpresa askok ezin zuten erritmoa mantendu. Kaleetan jendea urduri zebilen, ez zekielako zer etorriko zen.

Estatu Batuetan, aldiz, lasaiago zegoela ematen zuen. Telebistan esaten zuten egoera kontrolpean zegoela. Venezuelako petrolioari esker, hornidura bermatuta zutela zioten. Baina jende askok ez zuen guztiz sinesten.

Orduan etorri zen albiste handia: Iráneko liderra hil zuten eraso batean. Albistea berehala zabaldutako mundu osoan. Une batez, jendeak arnasa hartu zuen. Askok pentsatu zuten agian horrek tentsioa jaitsiko zuela.

Baina ez zen horrela izan.

Aste bat pasa baino lehen, bere semea jarri zen lider berria. Gaztea zen, baina ez zen ahula. Bere lehen agerraldian argi hitz egin zuen.

Ez zuen tonu lasaia erabili. Ez zuen zalantzarik erakutsi.

Argi esan zuen gerra ez zela amaituko.

Aitzitik, handitu egingo zela.

Bien bitartean, NATO mugitzen hasi zen. Herrialde askok base militarrek prest jarri zituzten. Hegazkinak leku estrategikoetara eraman zituzten.

Portugalen bonbarderoak agertu zirenean, jende askok ulertu zuen egoera benetan serioa zela.

Presidenteak, hala ere, gehiago nahi zuen. Bere planarekin jarraitu zuen.

Txipren submarino nuklear bat kokatu zuten. Mugimendu horrek kritika asko sortu zituen nazioartean. Herrialde askok ez zuten ondo ikusi.

Baina ez zen ezer aldatu.

Aste bat geroago, azken abisua bidali zen. Teorian, aukera bat zen gatazka gelditzeko.

Baina baldintzak ez ziren onargarriak.

Iráneko lider berriak ez zuen onartu.

—Ezin duzue gerra hasi eta gero baldintzak jarri —esan zuen.

Eta hortik aurrera, dena are azkarrago joan zen.

Erasoak handiagoak izan ziren, hobeto antolatuta.

Eta gero iritsi zen gaua.

Gau arraroa.

Hasieran, ez zen ezer berezirik gertatu. Baina bat-batean, hiri batzuetan argiak itzaltzen hasi ziren. Gero beste batzuetan.

Eta pixkanaka, mundu osoan.

Aireportuak gelditu ziren. Trenak ere bai. Telefonoak eta interneta erori ziren.

Zibereraso handi bat izan zen.

Jendea kalera atera zen, zer gertatzen ari zen ulertu gabe. Batzuek pentsatu zuten akats teknikoa zela. Beste batzuek, zerbait handiagoa.

Kaosa zabaltzen hasi zen.

NATOn barruan ere arazoak zeuden. Herrialde batzuk ez zeuden prest horrelako egoera baterako.

Portugaleko base batean, hegazkinak prest zeuden. Pilotuak barruan, agindu baten zain.

Baina agindua ez zen iristen.
Denbora gelditu zela zirudien.
Etxe Zurian, presidentea bakarrik geratu zen une batean. Leihoetatik begiratzen zuen, baina pentsamenduetan galduta zegoen.
Bazekien zer zetorren.
Eta hala ere, aurrera egin zuen.
Agindua bidali zen.

Txipreko submarinoan, ofizial batek pantaila begiratzen zuen. Aurrean, botoi gorria.
Bere bihotza azkar zihoan.
Orduan, mezu bat agertu zen pantailan.
Iráneko lider berriarena.
“Hau ez da zuen garaipena izango. Hau denon amaiera izango da.”
Ofizialak gelditu egin zen une batez.
Ez zuen ezer esan.
Segundo batzuk pasatu ziren.
Etxe Zurian, presidenteak pantaila begiratzen zuen.
—Berandu da —esan zuen.
Agindua baieztatu zen.
Submarinoan, ofizialak botoiari begiratu zion.
Momentu batez, dena geldi.
Eta gero, sakatu zuen.
Une horretan, munduan ez zen ezer entzun.
Baina denek sentitu zuten.
Zerbait amaitu zen.
Eta hortik aurrera, ez zegoen atzera bueltarik.